

2. HISTORIAURREA

Liburu honetako gai nagusia Zestoako historia baldin bada ere, gure herria oso aberatsa da historiaurreko atalari dagokionez, eta ezin dugu alde batera utzi. Gure arbaso historikoez eta guk geuk arbasoak izan genituen historiaurrean, eta haiek utzi ziguten ondarea, batez ere arkeologiak azaleratua, labur ematen saiatuko gara. Orain arte aurkitutakoaren berri eman-go dugu, urtero eta noiznahi gauza berriak aurkitzen ari direla jakinaren gainean egonda.

Batez ere Zestoako lurretan aurkitutako historiaurreko aztarnak izango ditugu aztergai, baina inguruko

(Debako Ekain...) eta Euskal Herriko beste zenbaiten berri ere emango dugu, beste udalerrri batzuetakoak izan arren. Dena den, hemendik aurrera aipatuko diren Zestoako eta Ekaingo haitzulo eta leizeak non dauden jakiteko, interesgarria da lehen kapituluko "1.25. Zestoako haitzulo eta leizeak" izeneko irudira jotzea.

Lehenik eta behin, aztarnategietako materialak zein garai eta kulturatakoak diren kokatzeko oso lagungarria da ondoan erakusten dugun taula.

EPOKA	GLAZIAZIOA	GIZAKIA	K. a. urteak	KULTURAK		AZTARNATEGIAK
HOLOZENOA	Glaziazio artekoa	<i>Homo sapiens sapiens</i>	2000-500	METALEN AROA	Burdin Aroa	Danbolin, Ekain V (Deba)...
			3000-2000		Brontze Aroa	Erlaitz, Erralla II, Ertxiña.
			6000-3000	NEOLITOA	Eneolitoa	Amalda, Astuigaina...
			10000-6000	EPIPALEOLITOA edo MESOLITOA	Zenbait	
GOI PLEISTOZENOA	WÜRM	<i>Homo sapiens sapiens</i>	15000-8000	GOI PALEOLITOA	Madeleine aldia	Ekain (Deba), Erralla, Baio...
			20000-15000		Solutre aldia	Amalda, Ikeitz (Idiakaitz)...
			28000-20000		Gravette aldia	Idiakaitz, Amalda...
			38000-28000		Aurignac-Perigord aldia	Ekain (Deba), Amalda
ERDI PLEISTOZENOA	Glaziazio artekoa RISS	<i>Homo sapiens neanderthalensis</i>	160000-30000	ERDI PALEOLITOA	Moustier aldia	Amalda, Amalda III, Idiakaitz
BEHE PLEISTOZENOA	Glaziazio artekoa MINDEL	<i>Homo heidelbergensis</i>	1000000-800000	BEHE PALEOLITOA	Acheul aldia	Idiakaitz, Ikeitz (Idiakaitz) leizea
	GÜNZ	<i>Homo habilis</i>	2200000-1600000		Olduvay aldia	
	Glaziazio aurrekoa	<i>Paranthropus</i> eta <i>Australopithecus</i> -ak	4600000-1000000			

2.1. irudia. Historiaurreko epoka, glaziazio, kultura eta gizakiak Euskal Herrian.

2.1. BEHE PALEOLITOA

2.1.1. Olduvay aldia

Hau da Behe Paleolitoko lehen kultura. Afrikako ekialdean orain bi milioi urte baino lehenago agertu zen. Ordukoa da tresnak sortu zituen lehen gizakia: *Homo habilis* izenekoa. Urak landutako harriak erabiltzen zituen, berak gutxi landuta edo landu gabe. Euskal Herrian ez dago kultura horretako aztarnarik.

2.1.2. Acheul aldia

Behe Paleolitoko bigarren kultura da. Harri landuzko bi aurpegiko esku-aizkorak, apaingarriak, zurezko lantzak, etab. egiten zituen aldi hartan *Homo erectus* gizakiak. Euskal Herrian aldi honetako aztarnak Urbasan, Lizarran, Miarritzen, Irunberrin eta abarren aurkitu dira.

- Erdi Aroan Euskal Herri izandako Burgosko Atapuerca¹ aztarnategi famatueta ere aurkitu dira aldi hartako gizakiaren arrastoak. Hango aztarnategietako lanak 1978. urtean hasi ziren², eta harrezkero aurkuntza ugari eta garrantzitsuak egin dituzte. 2003an orain 800.000 urte baino gehiago han bizi izandako

hominidoen berri eman zuten³. *Homo antecessor* bataiatu zuten orduko gizakia. Haren baraila, errotula eta parietala aurkitu zituzten. Baita Europako mendebaldeko harri-tresna zaharrenak ere. 2007an, berriz, Europako hominido zaharrenaren baraila aurkitu zuten⁴. Orain 1,2 milioi urte bizi izandako hominido-arena da, diotenez, eta *Homo habilis* zein *Homo rudolfensis* afrikarren antza duela diote.

- Akitanian ere badira garai hartako aztarnak Combre-Grenal-en (Dordoniako Domme-n), Girondako Coutras ondoko Isle-ko ibarrean⁵...

- Zestoan ere badira Acheul aldiari dagozkion bi aztarnategi, eta biak elkarren ondo samarrean daude: bata Idiakaitz (Irikaitz) famatua da, aire zabalean dagoena, eta bestea Ikeitz (Idiakaitz) leizea.

- Aire zabaleko Idiakaitz aztarnategiaren ondoan dagoen Ikeitz (Idiakaitz) leizeari dagokionez, 2002an hasi ziren sarrerako zuloa handitzen, Azpeitiko Antxieta Jakintza Taldeko Xabier Lazkanoren zuzendaritzapean⁶. Sarreran, 1,25 m-ko sakoneran, Behe Paleolitoko lehen hondakinak agertu ziren⁷.



2.2. irudia. Idiakaitz ingurua Baiotik. Bertan behean Bainuetxeko tren-geltokitik eskuinera "Geltoki" deitutako aztarnategiaren estalki iluna ikusten da. Irudiaren erdian Idiakaitz baserriaren aurriak daude.

2003an hasi ziren zundaketak egiten, Aranzadi Zientzia Elkarteko Maria Jose Iriarte eta Albaro Arrizabalaga arkeologoaren zuzendaritzapean. Hurrengo urtean, 2004an, jarraipena eman zitzaizkien zundaketei, aurreko urteko arduradunen zuzendaritzapean, baina 3 metroko sakoneraraino aztertuta, besteak beste, Goi Paleolitoko hondakinak aurkitu zituzten⁸, eta ez Behe Paleolitokoak. Hala ere, zundaketen ordez indusketa egiten dutenean baliteke Behe Paleolitoko materialak ere azaltzea.

- Dena den, Behe Paleolitoko aztarnategirik famatuena Idiakaizkoa dugu Zestoan. Aurkikuntzaren lehen albisteak 1998. urtean hasi ziren argitaratzen⁹.



Azpeitiko Antxieta taldekoek 1996an aurkitu zituzten aztarnategiko lehen piezak, hau da, harrizko tresnak. 1997an miaketa estratigrafikoa egin eta suarritzko laska edo harri-printzak topatu zituzten¹⁰. Aranzadi taldekoak orduan ohartu ziren, besteak beste, Behe Paleolitoko aztarnak zeudela. 1998an ziotenez, aztarnategiak 3.000 metro koadro inguru hartzen zituen. Urte hartan egin zuten lehen indusketa Albaro Arrizabalaga arkeologoaren zuzendaritzapean. Aztarnategiak sei hektarea baino gehiago zituela zioten. Behe Paleolitoan gizakiak tailatutako harriak aurkitu zituzten. Aire zabaleko aztarnategia denez gero, uste bezala material organikorik ez zuten topatu¹¹.

2.3. irudia. Ikeitz (Idiakaitz) leizerako sarbidea.

2.4. irudia. Idiakaizko beste indusketa-gune bat, "Geltoki" izenekoa.



Hurrengo urtean, 1999.ean, jarraipena eman zitzaien indusketei. Orduko egunkariak berri eman zuten, Behe Paleolitoko altxorra zegoela eta aztarnak (Europako beste lekuetan ez bezala) jatorrizko tokian zeudela adieraziz¹². Hasieran uste baino handiagoa zen aztarnategia (Zubimusuko zubirainokoa), eta ondoko futbol-zelaia ere hartzen zuen¹³. Gainera, Behe Paleolitoari zegokion beste gune bat aurkitu zuten.

Aurreko urtean hasitako T erako lubakia industen jarraitu zuten, eta 2,10 m-ko sakoneraraino iritsi ziren. Silexa ez eta beste material batzuetako harrizko lanabesak (handiak eta tartean txikiagoak) aurkitu zituzten, ustez Behe Paleolitokoak.

Futbol-zelai inguruan “Aldagelak” izeneko lekuan zundaketa egin zuten¹⁴, bi metro karratukoa.

Industen jarraitu zuten 2000. urtean ere. 3,4 metro-ko sakoneraraino zundaketa eginda harrizko tresna batzuk aurkitu zituzten, gizakiek erabilitakoak. Bai-nuetxe alderago “Geltoki” izeneko beste indusketa-gune bat ireki zuten¹⁵.

2001. urtean laugarren indusketa-kanpainari ekin zioten Idiakaitzen. Euskal Herriko Behe Paleolitoko aztarnategi zaharrena eta aberatsena ote den pentsatzen hasi ziren. Eusko Jaurlaritzak Kultur Ondasun Kalifikatu izendatu zuen aztarnategia. Beste zundaketa bat egin zuten, eta emaitza onak izan ziren.



2.5. irudia. Zestoako hirigune ondoan, eskuinean, Urola ibaia, zubia eta futbol-zelaia.

Horrez gain, Idiakaizko aztarnategiak zortzi bat hektarea hartzen dituela egiaztatu zuten¹⁶.

2002. urtean bosgarren indusketa-kanpainari ekin zioten. Bi indusketa-gune nagusietan aurreko urteetan baino hondakin gehiago eskuratu zituzten. Indusketa nagusitik 75 bat metro ipar-ekialdera zundaketa egin zuten. Bertan Behe Paleolitoan erabilitako harri-printza handiak eta euskarri ugari topatu zituzten, besteak beste. Behe Paleolitoko hondakin asko aurreko garaietako harri-printzen zatiak elkartuta lortu dituzte. Horregatik, hurrengo urtean indusketa-gune nagusia zundaketa horren lekura aldatzea komeni zela zioten¹⁷.

2003. urtean Idiakaizko aztarnategiak gutxienez 8 hektarea zituela zioten, baina zabalagoa izan zitekeela ere bai. Bi gune induskatu zituzten: aztarnategi nagusian eta aurreko urtean zundaketa egindako lekuan. Idiakaitzen lanabes-lantokia zegoela diote adituek, eta horregatik dagoela gune batzuetan hain tresna-dentsitate handia (maila batean metro koadroko 300 aztarna inguru ere aurkitu dituzte). Tamaina askotako harri landuak topatu dituztelako, material horiek gizakiak beste leku batzuetatik Idiakaitzera lantzera ekarri zituela diote. Horiek *Homo heidelbergensis* gizakiak (*Homo neardenthalensis*-en arbasoak) egin zituen. Klima, berriz, oraingoaren tankera-koa zuen, epela eta hezea. Aire zabalean bizi ziren, eta ez haitzuloetan, glaziazio-garaian bezala¹⁸.

Aurreko urtean zundaketa egindako lekuan zazpi metro koadroko zatia hartuta Behe Paleolitoko hainbat fasetako materialak aurkitu zituzten. Bertan egon zen lanabes-lantegikoak izango dira. Euskarri ugari aurkitu zuten, gehienak forma lauak. Horietako batzuk kolpekari edo matrize moduan erabiltzen zituzten, harri-printzak ateratzeko. Beste material batzuk ukituta daude Behe Paleolitoko tresnak osatzeko: tailatutako ertzak, karraskagailu handiak, dentikulatuak, etab.¹⁹.

2004. urteko udan zazpigarrenez indusketei ekin zioten Idiakaitzen. Indusketa-gune nagusitik 75

metro ipar-ekialdera dagoen “Lubaki” izeneko gune berrian, trenbide ondoan, indusi zuten, eta aztarnadentsitate handia topatu ere bai. Behe Paleolitoko euskarri handiak zeuden, eta uharrri landuak (orain 150.000 urte ingurukoak)²⁰. II eta III. mailan aurkitutako tresnen herena Behe Paleolitoari zegokion²¹.

2005. urtean berriz ere ekin zioten, zortzigarren aldiz, Idiakaitz industeari. Tresnak egiteko lantegia zegoen Behe Paleolitoan; izan ere, Urola ibaiak haitz bolkanikoak moztu eta Idiakaitz aldera ekartzen ditu. Fosildutako polen eta fruitu-oskol errean arrastoak analizatuta jakin dute ibai aldean baso txikia zegoela, urritzia, eta goraxeago baso mistoa haritz ugarirekin. Dena den, Behe Paleolitoan *Homo heidelbergensis* gizakia nomada zen, eta aldika etortzen zen Idiakaizko lanabes-lantegira. Idiakaitzen ondoan Bainuetzeko ur beroak egotea ere erakargarria izan zitekeen gizaki haientzat. Gainera, Urola ibaia gune horretan asko ixten delako ehiza-leku ona izan zitekeen²².

2005eko indusketak “Lubaki” izeneko gunean egin zituzten, aztarnategiko leku hori emankorragoa zelako. Lubakia zabaldu egin zuten mendebaldera. Guztira 17 metro koadro arakatu zituzten. “Lubakitik” 30 bat metro mendebaldera bi metro karratuko zundaketa egin zuten, eta hor aurkitutako material guztiak Behe Paleolitokoak ziren²³.

2006ean Aranzadi Zientzia Elkarteak, zenbait arrazoi zirela medio, ez zuen Idiakaitzen indusketarik egin²⁴. 2007. urtean bai, ordea. Ordura arteko kanpainan bakoitzean hiruzpalau mila harri topatu zituzten, eta horietako asko Behe Paleolitokoak, orain 240.000-150.000 urte bitartekoak²⁵. “Lubaki” indusketa-gunean aritu ziren, eta bertan Behe Paleolitoko materialak Goi Paleolitokoekin nahasian zeuden²⁶.

Hemendik aurrera ere Idiakaizko aztarnategian badago zer arakatua. Beste berrogeiren bat urte beharko dira aztarnategi osoa sakon miatzeko, baina ziur gaude Behe Paleolitoko oso material garrantzitsuak aurkituko dituztela.

2.2. ERDI PALEOLITOA

Erdi Paleolitoan, Behe Paleolito eta Goi Paleolitoaren artekoan, Neanderthal gizakia bizi izan zen.

2.2.1. Moustier aldia

Homo sapiens neanderthalensis gizakiak sortutako kultura da. Tresna ugari erabili zuten: jostorrazak, ontziak, arrantzarako amuak, etab. Akitanian Dordoniako Moustier, Dordoniako Domme-ko Combe-Grenal, Corrèze-ko La Chapelle-aux-Saints... dira kultura honetako aztarnategi batzuk⁵.

- Euskal Herrian aldi honetako aztarna garrantzitsuak daude Murban (Araban, Aiuda ibaiaren ondoan), Lezetxikin, Axlorren, Isturitzen eta abarren. Zestoa Amaldan eta Amalda III haitzuloetan aurkitu dituzte Moustier aldiko aztarnak.

- 1981. urterako bi indusketa aldi eginak zituzten Amaldako haitzuloaren atarian. Orduan hirugarren saioa burutu zuten, eta 1982an laugarrena. Lehenbizi atariko indusketa-guneko lanak burutu ziren, eta gainera sarreratik 23 eta 30 metro bitartean beste indusketa-gune bat ireki zuten. Atariko maila sakonenean Moustier aldiko hondakinak topatu zituzten²⁷.

Hurrengo urtean, 1983an, haitzulo barruko indusketa-gunean Moustier aldiko maila aurkitu zuten. Suharriaz gain, ofita, basaltoa eta beste zenbait lehen-gai erabili zituen garai hartako gizakiak²⁸. 1984ko

indusketan ere Moustier aldiko maila (orain 35.000 urtekoa) aurkitu zuten²⁹.

Amaldako haitzuloan Moustier aldiko animalia ugari topatu da. Ahuntza (*Rupicapra rupicapra*, *Capra pyrenaica*) eta oreina (*Cervus elaphus*) dira ugariak, baina zaldiak (*Equus caballus*), bisonte edo basazezena (*Bison priscus/Bos primigenius*), otsoak (*Canis lupus*), azeriak (*Vulpes vulpes*), leizehartza (*Ursus spelaeus*) eta abar ere badira³⁰.

Amaldan Moustier aldi tipikoari dagokion harri-industria eta hezur-industria ere topatu zuten. Harriko hiru punta, 48 harri horztun, 12 muxarratu, 6 karraskagailu, etab. Hezur-zati ukitua eta ebakia duen beste hezur bat ere topatu ziren³¹.

- Moustier aldiko materialak aurkitutako beste haitzulo bat Amalda III da. Harriko punta bat, 139 harri-printza, 22 karraskagailu, 17 harri-printza ukitu, etab. zeuden³².

- Idiakaizko aztarnategian, 2001. urtean indusketa-gune nagusiko IV. mailara iritsi ziren. Maila hori, behin-behinean bazen ere, glaziazio arteko garaikotzat jo zuten. Eem garaikotzat hartu zuten, hau da, orain 127.000-118.000 urte bitartekotzat. (Izen hori Herbehereetako Amersfoort hiritik igarotzen den Eem ibaitik hartua da, eta Riss-Würm glaziazioen arteko garaia adierazten du)¹⁶.

2.3. GOI PALEOLITOA

Goi Paleolitoan *Homo sapiens sapiens* edo Cro-Magnon gizakia bizi izan zen gure lurretan. Würm glaziazioa zegoen eta klima oso hotza zen, nahiz eta tarteka giro epelagoa ere izan.

2.3.1. Aurignac-Perigord aldia

Aldi honetako gizakiak hezurak, adarrak, zura eta harria erabili zituen tresnak egiteko. Akitanian aldi honetako aztarnak aurkitu zituzten Garona Garaiko Aurignac-en, Lascaux-en, Dordoniako Corbiac-en, Font-de-Gaume-n (Dordoniako Les Eyzies-de-Tayac-Sireuil herrian)⁵...



2.6. irudia. Deba. Sastarrain ondoan, argazkiaren erdian da Ekaingo sarbidea. Bertakoek Trikitiartz ere deitu izan diote leku horri.



2.7. irudia. Idiakaizko indusketa-gune bat.

- Euskal Herrian Aurignac aldiko aztarnak dituzten haitzulo batzuk hauek dira: Santimamiñe, Lezetxiki, Bolinkoba, Isturitz, etab.

- Zestoan Sastarrain baserriaren ondoko Erlaitz haitzuloan Goi Paleolitoko materialak (harri eta hezur landuak) topatu zituzten, baina ez dago zehazterik Goi Paleolitoko zein alditakoak diren³³. Gauza bera gertatzen da Zestoako Arbelaitz II haitzuloan aurkitutako materialarekin³⁴.

- Debako Ekain haitzuloan egindako indusketetan ere Goi Paleolitoko materialak ugari aurkitu zituzten, baina Aurignac-Perigord aldikotzat jo dituzte bertako VIII, IX eta X. mailak. Harri-industria, hezur-industria eta fauna-hezurretan aztarnategi aberatsa da. Hartziko karraskagailuak, harri muxarratuak,

zulakaitzak, etab. topatu zituzten. Animalia-hezurak ere jaso zituzten: basazezen edo bisonte, orein, ahuntz, azeri, leize-hartz, hegazti, molusku eta abarrenak³⁵.

- Zestoako Amalda haitzuloan ere topatu zituzten Perigord aldiko aztarnak, harri-industria, hezur-industria eta animalia-hezurak, hain zuzen, indusketa V eta VI. mailetan. Hartziko karraskagailuak, zulagailuak, zulakaitzak, etab., hezurrezko bi aza-gaia zati, bi hezur zati landu, orein-hortz eta azeri-hortz zulatuak, etab. Hainbat animalia ugaztun, hegazti, arrain eta moluskuren aztarnak ere aurkitu zituzten³¹. 1981 eta 1982. urteko indusketa aldietan Perigord aldiko fazie batzuk bereizi ziren²⁷. 1984an, berriz, Perigord aldiko bi maila, lehentxeago aipatu ditugunak²⁹.

2.3.2. Gravette aldia

Aldi hau berez Perigord aldiaren zati da, Châtelperron aldia deitutakoa bezalaxe, baina hemen bereizita ipini dugu, batez ere Zestoako Idiakaizko aztarnategian material ugari Gravette aldikotzat jo dutelako. Aldi honek K.a. 28.000-20.000 bitartea hartzen du.

- Idiakaitzen 2002. urtean, adibidez, 800 aztarna inguru zituzten Gravette aldikoak eta Behe Paleolitoakoak³⁶. 2004. urtean, berriz, Idiakaizko “Lubaki” izeneko indusketa-gunean silexko materialak aurkitu zituzten, Gravette aldiari zegozkionak²¹.

- Bestalde, aurreko puntuan Amaldako haitzuloan Perigord aldikotzat jo ditugun aztarnak, animalienak, Gravette aldikotzat ere hartu izan dira. Indusketako V eta VI. mailei dagozkie. Ahuntza (*Rupicapra rupicapra* eta *Capra pyrenaica*) eta oreina (*Cervus elaphus*) dira ugariak, baina zaldia (*Equus caballus*), azeriak (*Vulpes vulpes*), leize-hartzak (*Ursus spelaeus*) eta abar ere topatu zituzten³⁰.

2.3.3. Solutre aldia

Aldi hau K.a. 20.000-15.000 urte bitartean garatu zen. Harria eta hezurra landuta oso tresna finak egin zituzten. Labarretako artea ere asko garatu zen Solutre aldian.

- Akitanian aldi honetako aztarnak topatu zituzten Charente-ko Roc-de-Sers-en eta Dordoniako Fourneau di Diable haitzuloetan, adibidez⁵.

- Euskal Herrian aldi honetako aztarna garrantzitsuenak Ermitian, Isturitzen, Bolinkoban eta Aizpitarren aurkitu dituzte. Praileaitz I haitzuloan ere pintaturiko marra eta puntu gorriak aurkitu dituzte, eta, hipotesi nagusiaren arabera, orain 18.000 urtekoak dira, hots, Solutre aldikoak³⁷.

- Zestean, berriz, Ikeitz (Idiakaitz) leizean aldi horretako materiala aurkitu zuten: harri-mutur bat eta zenbait harri-xafla⁶.

- Dena den, Amalda da Zestean, Solutre aldiari dagokionez, aztarnategirik aberatsena³². Harrizko eta hezurrezko tresnak, apaingailuak eta animalia-hezurak (ugaztunenak, hegaztienak, arrainenak eta moluskuenak) topatu zituzten.

Harrizko tresna batzuk hauek dira: 232 bizkardun pieza, 37 zulagailu eta “bec”, 57 zulakaitz, Noailles-ko 14 zulakaitz, 4 gezi-punta koskadun, 18 karraskagailu, etab. Hezur-industrian nabarmentzekoak hauek dira: 7 azagaia zati eta eztenxo zati bat. Apaingailuak, berriz, hauek dira aipagarriak: orein-hortz zulatu bat, *Trivia europea*-ren bi zuloko oskol bat, etab. Amaldan Solutre aldikoak diren animalien hezurak ere aurkitu zituzten. Hauek dira bertako animalia-espezie batzuk: zaldia (*Equus ferus*), basazezena edo bisontea (*Bos primigenius/Bison priscus*), oreina (*Cervus elaphus*), orein erraldoia (*Megaloceros giganteus*), ahuntza (*Rupicapra rupicapra* eta *Capra pyrenaica*), basurdea (*Sus scrofa*), azeria (*Vulpes vulpes*), haitz-usoa (*Columba livia*), mika (*Pica pica*), izokina (*Salmo sp.*), karrakela (*Littorina*), etab.³⁰.

2.3.4. Madeleine aldia

Berez aldi honek izena Dordoniako Tursac herrian dagoen Madeleine haitzuloetik hartu du. Aldi hartan Solutre aldiko tresneria eta artea hobetu eta garatu egin ziren. K.a. 15000-8000. urte bitartea hartzen du.

- Akitanian Madeleine aldiko aztarnak dituzten haitzulo batzuk hauek dira: Dordoniako Laugerie-Basse, Laugerie-Haute, Villepin eta La Madeleine, Loteko Reilhac eta Rocamadour, etab.³⁸.

- Euskal Herrian Madeleine aldiari dagozkion aztarnategi nagusiak hauek dira: Santimamiñe, Bolinkoba, Lumentxa, Ekain, Altxerri, Isturitz, Urtiaga... Dena den, gure inguruan Debako Ekaingoa da, erreplika edo Ekainberri Zestoako lurretan duena, aldi hartakoa, eta gehienbat haitzulo hau aipatuko dugu.

- Zestean badira, ordea, Madeleineko aztarnak izandi tzaketenbe stebi gune :I keitz(Idiakaitz)l eizea

eta Erralla haitzuloa. Ikeitz (Idiakaitz) leizean baliteke Madeleine aldian gizakia egon izana⁸; baita Baioko haitzuloan ere, zeren eta haitzuloetako lehoiaren, hartzaren, errinozeroaren, bobido handiaren, oreinaren eta abarren hezurak aurkitu baitituzte¹⁴.

- Erralla haitzuloan, ordea, segurua da egon zela. Erralla Zestoako partean dago, Altzolaratserrekaren inguruan eta Errezilgo Granada baserriaren ondo samarrean. Indusketak 1977an eta 1978an egin ziren. Madeleine aldiko aztarna ugari aurkitu zuten II, III, IV, V eta VI. mailetan. Hemen, adibide gisa, V. mailan topaturiko hondakin batzuk baino ez ditugu aipatuko³⁹.

Harri-industria: 15 karrakagailu, 6 zulagailu eta "bec", 19 zulakaitz, 15 harri muxarratu, 98 harri bizkardun...

Hezur-industria: 20 azagaia edo puntak eta zatiak, 2 bastoitxo zati, espatula bat, 4 orrazi zati...


Apaingailuak: 2 orein-betortz (bata zulatua eta bestea koskarekin), ahuntz-hortz zulatu bat, *Nassa reticulata*-ren maskor zulatu bat, *Dentalium vulgare*-ren maskor bat, adar zati markatu bat.

Ugaztunak: *Capra pyrenaica* ahuntza, *Rupicapra rupicapra* ahuntza, *Mustela nivalis* erbinudea, *Cervus elaphus* oreina, *Equus ferus* zaldia, *Bos primigenius/Bison priscus*, basazezena edo bisontea, *Vulpes vulpes* azeria...

Hegaztiak: *Pyrrhocorax graculus* belatxinga mokohoria, *Passer txolarrea*, *Alectoris rufa* epergorria, *Columba livia* haitz-usoa, *Lagopus mutus* lagopodo zuria, *Falco tinnunculus* belatz gorria...

Moluskuak: *Patella vulgata* lapa, *Littorina littorea* karrakela arrunta, *Pecten maximus* bieira handia...

Horrez gain, Erralla haitzuloaren barruan oreinhezurrezko bi metaketa-gune berezi zeuden, eta erri-



2.8. irudia. Erralla I haitzuloa.



2.9. irudia. Ekainberri Olazarragatik.

tuzko biltegiak izan zitezkeen⁴⁰. Dena den, Errallan indusketetan bildutako informazio osoa Aranzadi Zientzia Elkartek 1985ean argitaratu zuen ale monografikoan⁴¹. Bestalde, Errallan Madeleine aldiko txakurraren besahezurra azaldu zen, eta Europan beste zortzi lekutan baino ez dira Paleolitoko txakur-hezurak azaldu. Errallakoa da mendebal eta hegoaldeen dagoena⁴².

- Debako partean Zestoarekin muga egiten duen Ekain haitzuloa da, noski, Madeleine aldiko famatuen guretzat, batez ere labar-artearen arloan munduko onenetakoa delako.

Ekaingo haitzuloa 1969. urteko ekainaren 8an aurkitu zuten Andoni Albizuri eta Rafael Rezabal azpeitiarrek, Antxieta taldeko kideek. Urte hartan bertan eman zuen Aranzadi Zientzia Elkartek aurkikuntzaren berri, eta hormetan Madeleine aldiko gizakiak egindako irudiak ere argitaratu zituzten⁴³.

Ordura arte 53 irudi aurkitu zituzten, eta horiez gain ikur eta marka (lerro eta puntuak) ugari ere bai. Irudiak 53 ziren guztira: 33 zaldiak, 10 bisonte, 2 hartz, 2 orein, 4 ahuntz eta 2 arrain. Ia metro bat luze-ko zaldi-irudiak ziren handienak, baina 10 zentimetro

bestarik ez zuen ahuntz-irudia ere bazegoen. Irudi gehienak pintatuak ziren, baina grabatuta ere bazekuden batzuk. Beste zenbaitek zati bat pintatuta eta beste zatia grabatuta zuen. Irudi gehienak tinta beltzez eginak ziren, baina gorritz edo bi koloreez eginak ere bazekuden.

1969ko irailaren 26an hasi ziren Ekaingo indusketak egiten Jose Migel Barandiaranen zuzendaritzapean. Sarrera aldea arakatu zuten lehenbizi. Gero 1971. urtean eman zieten jarraipena indusketa-lanei. Harrizko tresnak eta animalia-hezurak ugari topatu zituzten. 1972an egin zuten hirugarren indusketa aldia. Oso emankorra izan zen harri-industriari zego-kionez. Baita 1973. urteko indusketa aldia ere. Besteak beste, basahuntzaren burua eta oreinaren burua grabaturik dituen hareharrizko plakatxoak aurkitu zuten. 1974 eta 1975. urteko indusketak amaitutakoan emaitzak argitaratu egin zituen Aranzadi Zientzia Elkartek bi urte geroago⁴⁴.

1978. urtean Ekaingo irudiei buruzko azterketa sakonago eta zehatzagoa argitaratu zuten⁴⁵. Guztira 59 animalia-irudi zeuden: 34 zaldi, 11 bisonte, 5 ahuntz, 3 orein, 2 hartz, 2 errinozero? eta 2 arrain.



2.10. irudia. Ekaingo zaldiak (Aranzadiko argazkia).

Irudi horiek multzoka kokaturik daude haitzuloan zehar, eta multzo nagusiak hauek dira:

“Antzei” izeneko multozan zaldi-buru bat, 2 orein, izokin bat eta margo zatiak daude.

“Zaldei” izeneko multzoan 25 zaldi, 11 bisonte (batzuk zalantzazkoak), orein eme bat, basahuntz bat, arrain bat, buztinean hatz-arrastoak eta margo zatiak.

“Artzei” izeneko multzoan 2 hartz.

“Azkenzaldei” izeneko multzoan 7 zaldi eta marra grabatuak.

Azken multzoan ildo zabal eta arinak daude, erri-nozeroaren irudia gogorarazten dutenak.

Dena den, geroztik “Zaldei” izeneko multzoan, erdialdeko zaldi baten azpia garbituta, bisonte baten irudia azaldu da⁴⁶.

Indusketetan hamabi maila aztertu zituzten, baina horietatik Madeleine aldiari dagozkionak IV, V, VI eta

VII. mailak dira. Harri-industria eta hezur-industria ere aberatsa utzi ziguten Ekaingo arbasoek. Aldi hartako animalien hezurak ere ugari aurkitu zituzten: ugaztunenak, hegaztienak, arrainenak eta moluskuenak³⁵.

2000. urtean hasi ziren Zestoako partean Ekainberri edo Ekainen erreplika eraikitzeke lehen urratsak egiten. Lur-mugimendu handiak zirela eta, Aranzadi Zientzia Elkarteak aztarnategiren bat ote zegoen lekua ikertu egin zuen⁴⁷. Hurrengo urtean ere, 2001.ean, Aranzadi Zientzia Elkarteak Zestoako Udalarekin elkarlanean ari zen Ekainberri eraikitzeke⁴⁸.

Hurrengo urtean, 2002an, Ekaingo haitzulotik irudien margoen laginak hartu eta mikroskopioz egindako analisisien berri eman zuten⁴⁹. Mikroskopio optikoa eta ekorketazko mikroskopio elektronikoa erabili zituzten ikerketarako. Kolore beltzeko lerroak, gehienak, egur-ikatzarekin eginak ziren, eta bi irudi besterik ez manganeso oxidoarekin eginak. Kolore gorri eta marroizko lerroak, berriz, gehienak buztin gorri edo marroi burdintsuaz eginak ziren. Manganeso oxidoa, berriz, badirudi haitzuloan bertan aurkitutakoa erabili zutela.

Tarteka zientziaren aldetik ekarpen interesgarriak egin dira Ekainen aurkitutako materialaz. Indusitako VII. mailako harri-industriaz, adibidez, lan interesgarria argitaratu da material horiek Behe Madeleine aldikoak edo Erdi Madeleine aldikoak diren definitzeko⁵⁰.

Esan beharra dago Ekaingo haitzuloa itxita egon dela aurkitu zutenez gero orain arte, eta azken urteetan Ekainberri eta Ekaingo erreplika egiten saiatu dira. 2004an Ekain Fundazioa sortu zen, Zestoako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak parte hartuta. Aldi berean Montignac-en erreplikaren lanak aurrera zihoazen⁵¹. Berez erreplika teknologia berrienekin eraikitzen Renaud Sanson aditua ari zen, Akitaniako Lascaux-ko erreplika dagoen

lekutik oso gertu⁵². 2006. urtean argitara eman zituen Renaud Sanson jaunak Ekaingo erreplikari buruzko gorabehera guztiak⁵³. 2006an amaituta egotea espero zen, baina lanak atzeratu egin ziren. 2006an, ordea, Alfa Arte enpresak 2007ko udarako eszenografia osagarriaren lanak amaitu eta urte horretako abenduan Ekainberri estreinatzeakoak ziren⁵⁴.

2008ko uztailaren 7an UNESCO erakundeak Quebecen Ekaingo haitzuloa (Santimamiñe, Altxerri eta abar ere bai) "Gizateriaren ondare" izendatu zuen⁵⁵. Izendapen horrek erreplikari bere bultzada eman eta azkenean 2008ko irailaren 11n estreinatu zen ofizialki. Ekain haitzulo originaletik 300 metrora dago Zestoako lurretan, Sastarrain baserrira iritsi baino lehentxeago.

Zestoako hirigunetik gertuago dago Lili jauregia, XVI. mendearen hasieran eraikia. Ekain Fundazioak bereganatu eta, 2004. urtean, bertan Historiaurreko Museoa prestatzea zen aukeretako bat⁵⁶.

2007. urtean Lili jauregian Historiaurrearen museoa eraikitzeko proiektua martxan jarri zuten⁵⁷, baina geroztik geldialdia izan du.

2.11. irudia. Ekainberri eraikitzen.



2.12. irudia. Lili jauregiko antzinako argazkia.

2.3.5. Goi Paleolitoko artea

Historiaurre osoan Goi Paleolitoa da gehien miretsi dena, hau da, *Homo sapiens sapiens* edo Cro-Magnon gizakiaren artea. Objektuak landuz ere egin zuten artea (arte erabilgarria) gure arbaso haiek. Ikus bestela, adibide gisa, Ekaingo xafla grabatua edo Ekaindik hain urrun ez dagoen Praileaitz I haitzuloan aurkitutako zintzilikarioak, Madeleine aldiaren egindakoak⁵⁸.




Hala ere, labar-artea da gehien erakartzen gaitue-na, eta horretan berebiziko garrantzia du Zestoatik hain hurbil dugun eta Debako partean dagoen Ekainek. Cro-Magnon gizakiak zergatik pintatu zituen irudi haiek? Zergatik irudikatu zituzten animaliak haitzuloan hain barrenean?

Madeleine aldiaren klima hotza zen, Würm glaziazioa artean indarrean zegoelako. Itsas maila orain baino 120 bat metro beherago zegoen, hots, oraingoa baino hamabi kilometro urrunago zegoen orduan itsasertza. Paisaia zuhaitzik gabea zen (haran babes-tuetan izan ezik) eta bertan zebiltzan animalia garrantzitsuenak hauek ziren: bisonteak, elur-oreinak, oreinak, basazezenak, basahuntzak, zaldiak, sarrioak...

Madeleine aldiko arte figuratiboan animalien irudiak dira ugariak. Ekainen zaldiak dira nagusi, eta klima hotzeko faunako animalia-irudirik ez dago. Haitzean dauden ertzak eta arraildurak ere erabili zituen gizakiak irudietan.

Cro-Magnon gizakiaren irudi haiek ez ziren apain-garri hutsak, jakina. Bestela haitzuloaren sarreran ipi-niko zituzketen, denek ikusteko moduan. Oso barrura joaten ziren, ordea, beste helbururen bat zutelako. Horretarako aipatu izan den arrazoi bat ehizaren magia izan da. Animalia irudia eginda gizakia nagusitu egingo zitzaion hari, eta errazago ehizatuko zuen. Horrez gain, baliteke animalia irudikatuta animaliak haitzulora hurbildu egingo zirela sinestea.

Ekaingo sarrera indusita, ordea, honako hau egiaz-tatu da: alegia, gizakiak utzitako hondakin ugariak



2.13. irudia. Luigi Luca Cavalli-Sforzaren hiru mapak: arkeologikoa, linguistikoa eta genetikoa.

oreinarenak eta basahuntzarenak direla, bisontearenak gutxi daudela eta zaldienak direla gutxienak. Beraz, zaldia Ekaingo biztanleen totema izan daiteke. Horregatik irudikatuko zuten haitzuloaren hain barrenean. Hala ere, zaldia ehizatzen ez bazuten, zergatik pintatzen zizkioten geziak? Zergatik zauritzen zuten?

Ikusten denez, hauek eta gainerako teoriak badiutuzte beren alde onak eta beren akatsak. Hala ere, irudiak hain bikain eginda egoteak gauza bat esan nahi du: pintura-ikasketak egiten zituztela⁵⁹.

Paleolitoko arte aldetik hain bikaina eta ikusgarria den Ekain haitzuloaren antzekoak badira beste hainbat ere, eta multzo hori kontuan hartuta diziplina arteko ikerketak egin dira. Interesgarriak dira Paleolinguistika, Paleoantropologia eta Populazioen genetika aldetik egindako ikerketek diotena. Paleolinguistikaren arloan Koldo Mitxelena, Antonio Tovar, Julio Caro Baroja eta abarrek euskal toponimia azertu zuten. Euskal toponimoak Pirinioetatik iparraldera

Garona ibairaino eta Pirinioa inguratuz Akitaniatik Kataluniaraino (Mediterraneoraino) zeuden. Hegoaldean Ebro ibairaino ere bai, eta hortik aurrera Errioxa, Burgos, Soria eta Aragoiko zenbait lekutan ere bai. Tovar, Caro Baroja eta abarrek baskoi-substratua Kantabria, Asturias eta Galiziaraino ote dagoen susmoa hartu zuten.

Dena den, Cro-Magnon gizakiaren arteak duen hedapena gutxi gorabehera historiaurreko euskal toponimiaren maparekin bat dator. Horrez gain L. L. Cavalli-Sforza genetistak oraingo euskaldunen laginak hartuta ikerketa genetikoak egin zuen, garai bateko giza migrazioak aztertzeko. Gune euskaldun-akitaniarrean 92 gene dira bereizgarri. Kristo aurreko 4500. urteaz gero indoeuroparrek behin eta berriz egindako inbasioei eutsi egin zieten. Hizkuntza gordetzea da horren frogetako bat. Beraz, Cro-Magnon gizakiaren labar-arteak, euskal toponimia eta genetika bat etortzea oso zaila da hiruren artean harremanik egon gabe. Harremanak daudela pentsatzea, beraz, bidezkoagoa da⁶⁰.

2.4. EPIPALEOLITO EDO MESOLITO

Epipaleolitoa edo Mesolitoa Paleolitoaren eta Neolitoaren arteko aroa da. Gizakia ehiztari eta biltzaile huts izatetik ekoizle izateko urratsak ematen hasi zen. Azken glaziazioa (Würm izenekoa) ere amaitu egin zen. Zuhaitz hostogalkorreko basoak sortu ziren, eta fauna ere aldatu egin zen, giro berrira egokituta.

2.4.1. Azil aldia

Madeleine kulturaren ondorengoa da. Oso tresna landuak egin zituen gizakiak: harrizko karraska motzak, hezurrezko arpoi lauak, puntzoiak, etab. Euskal Herrian Azil aldiko hainbat aztarnategi dago. Bolinkoba, Ermitia, Santimamiñe, Lumentxa, Urtiaga, Isturitz eta abarretakoak dira batzuk.

- Azil aldiko aztarnak Debako Ekainen ere badaude. II. mailan Azil aldiko “Sauveterre” erako harri-

industria eta hezur-industria topatu zituzten: 101 harri bizkardun, 7 hiruki, 5 raklette, 3 harri muxarratu, hezurrezko arpoi lau baten zatia...

Ugartzunen hezurak ere aurkitu zituzten: *Bos taurus* edo behiarenak, *Cervus elaphus* edo orein arruntarenak, *Sus scrofa* edo basurdearenak, *Capra pyrenaica* edo basahuntz piriniarrarenak, txakurrarenak eta abarrenak. Moluskuen maskorrak ere aurkitu zituzten Ekainen.

Indusketako III. mailan ere Azil aldiko materiala agertu zen. Hezur-industriarik ez dago, baina harri-industria II. mailan aurkitutakoaren antzekoa da kopuruz. Izokin arruntaren hondakinak ere topatu zituzten. Moluskuen maskorrak ere bai.

2.5. NEOLITOA

Epipaleolito edo Mesolitoaren eta Metal Aroen arteko historiaurreko aroa da. Paleolitoan ez bezala, harria leunduta egiten zituzten tresnak. Klima Paleolitoan baino epelagoa zelako, gizakia ehiztari/biltzaille huts izateari utzi eta nekazaritzan zein abeltzaintzan hasi zen. Gainera buztingintza, otarregintza eta merkataritzaren hastapenak ere garatu zituen. Biztanleria erruz ugaltu eta leinutan antolatu zen.

Abeltzaintzarako, besteak beste, ahuntza, zezena, zaldia, ardia, txakurra... hezi zituen. Oso garrantzitsua zen abeltzaintzat transhumantzia, hau da, urtaroren arabera larre bila goi-mendietara joan edo handik behera jaistea.

Nekazaritzako lurretan elikagaiak ekoiztearekin batera mugak eta jabego pribatua ere hedatu ziren. Etxalde eta herriak eraikitzen hasi ziren⁶⁰.

Neolitoaren beste iraultza bat megalito edo harri handiena da. Orduko hilobiak dira arkitekturaren lehen aztarnak. Herrietako txabolak ia erabat desagertu baldin badira ere, trikuharriek iraun egin dute. Hilozak harlauzen azpian ipintzen zituzten, ondoan silexko lanabesak eta buztinezko ontzia zutela. Heriotzarekiko kultura eta erlijioasuna erakusten du horrek⁵.

Euskal Herrian megalitismoaren aztarnak badira. Hemen Neolitoan tumuluak, trikuharriak eta iruinariak egiten hasi ziren. Tumulua lurtean harriz eta lurrez egindako piloa da. Barruan ganbera megalitikoak izan dezakete gorpua ehorzteko. Ganberarik ez dagoenean errautsak azaldu ohi dira. Trikuharria ehorzteko talde-hilobia da. Harri handiz eratutako hilobi-ganberak dira. Galeria estalia ere izan dezakete. Iruinarria lurtean zutik ezarritako harri handia da. Trikuharrien garaikoa da⁶⁰.



2.14. irudia. Urbiako larreak. Transhumantzia-lekua.

2.6. METALEN AROA

Gizakia metalak lantzen hasi eta historia hasi arteko denboraldiari esaten zaio. Eneolitoa, Brontze Aroa eta Burdin Aroa hartzen ditu barne. Dena den, jarraipena dago metalak lantzeko teknologian historiaurretik hasi eta historian barrena murgildu arte.

2.6.1. Eneolitoa

Historiaurreko aldi honetan kobrea erabiltzen hasi ziren lanabesak egiteko. Kalkolito ere esan ohi zaio. Neolitoaren ondorengoa da, eta bertan ekonomia egonkorra lortutako komunitate asko sedentario bihurtu zen.

- Zestoan baditugu Eneolitoko aztarnak Amalda haitzuloan. Harri-industria, zeramika, metalak, apaingarriak, giza hezurak eta faunaren hondakinak aurkitu zituzten. Harri-industrian nabarmentzekoak dira 16 harri bizkardun, latz landutako 6 harri, 8 harri horztun, 5 zulakaitz, 2 gezi-punta txortendun eta hegaldun, 5 zulakaitz, etab.

Zeramikari dagokionez, hauek topatu ziren: 4 ertz zati, hondo lauaren zati bat, kordioaz eta hatz-markaz apaindutako zati bat eta forma jakinik gabeko zatiak. Metalezko piezak ere azpimarratzekoak dira: kobrezko bi puntako eztena eta kobre/brontzezko zati batzuk.

Apaingailuak ere aurkitu zituzten: kaltzitazko disko erako 4 ale eta *Dentalium vulgare* edo elefantehortz izeneko moluskuaren 8 oskol. Horiez gain gutxienez 17 gizakiren hezurak ere aurkitu ziren.

Animalia-hezurak ere bazeuden: *Bos taurus* edo behiarenak, *Capra hircus/Ovis aries* edo etxeahuntz/ardienak, *Sus domesticus* edo txerrienak, *Sus scrofa* edo basurdearenak, *Canis familiaris* edo txakurrarenak, eta abarrenak.

Hegazti-hezurak ere bazeuden: *Pyrhocorax pyrrhocorax* edo belatxinga mokogorriarenak, *Passer* edo txolarrearenak... Izokin baten arrastoa ere aurkitu zuten eta molusku batzuen arrastoak ere bai³¹.



2.15. irudia. Amaldako haitzuloa.

- Zestoako Amalda II haitzuloan ere baditugu Eneolitoko aztarnak, ugari ez badira ere: harrizko printza bat, zeramikazko kanpai-formako ontzi baten zatia, sokaz apaindua, eta behi, ahuntz eta ardiaren arrastok⁶¹. Kanpai-formako ontzi horren xehetasun guztiak ederki deskribatu ditu Anjel Armendaritz zientzialariak⁶².

- Gauza bera esan daiteke Amalda IV haitzuloko materialez ere. Kaltzitazko disko-formako bi ale, apaingarri gisa erabiltzekoak, aurkitu zituzten; halaber gizaki gazte baten hezurak eta behiaren zein ahuntz eta ardiaren hezurak⁶³.

- Amalda V haitzuloan ere bazeuden Eneolito edo Kalkolitoko aztarnak. Zeramikazko edalontzi-ertzaren eta sabel-hasieraren bi zati aurkitu ziren, kordoi leunez dekoratuak, eta horrez gain forma jakinik gabeko zeramika zatiak ere bai. Ahuntz edo ardiaren hezurak, orkatzarenak eta hartz arrearenak ere aurkitu zituzten⁶⁴.

- Astuigaina izeneko haitzuloan ere, laginak hartu eta analizatu ondoren, Eneolitoko material hauek azal-



2.16. irudia. Astuigaineko haitzuloa.

du ziren: lohi plastikoz apaindutako zati bat, zeramikazko bi ertz zati, zeramikazko ontziaren hondo lauaren zatiak, gizaki heldu baten garezur zatia, kaltzitazko disko erako ale bat, behiaren, ahuntzaren, ardiaren eta azkonarraren arrastok, etab.⁶⁵.

- Kontuan hartzekoa da, halaber, Ikeitz edo Idiakaitz leizea ere. Hor 2003an egindako zundaketan 6-8 geruzetan arrasto antropologikoak azaldu ziren. Leizea ehorztek leku gisa erabili zuten, Eneolitoan seguru asko¹⁹. 2004. urtean dataziorako egindako azterketa batzuen emaitzak jakinda, giza ehorzketa Brontze Aroaren hasierakoa zela erabaki zuten⁸.

- Azkenik, Artzabaleta gainean, Endoian, Zestoa eta Debaren arteko mugan, dagoen Arluze megalittoa aipatuko dugu. Harlauza erako monolittoa da, lur gainean 1,35 m-ko altuera duena. Oinean 1,75 m zabal da, eta puntan 0,2 m besterik ez. Lauza 0,3 m inguru lodi da. Ardatz nagusia 65°-ra orientaturik dago. Lauza inguruko hareharrizkoa da. 1982an J. Zabalak aurkitu zuen eta oraindik ez da indusi. Zein kulturatakoa den oraindik erabaki gabe dago⁶⁶. Zestoa bada Arluzeri lotutako ipuina. Horren arabera, Sastarrain baserriaren ondoan “Sansonarri” izeneko haitza Sansonek Arluzetik jaurti omen zuen⁶⁷.

2.6.2. Brontze Aroa

Brontzeko tresnak egin zituzten. Aro horretan hildakoak hilobietan ehorzten zituzten, eta hilobi horiek lur-tontorrekin edo mairu-baratzeekin (harrespilekin) adierazten zituzten. Eguzkia gurtzen zuten.

- Akitanian Brontze Aroko aztarnategi batzuk hauek dira: Dordoniako Singleyrac, Castelnau-de-Médoc, Medoc-eko Poullac ingurua...⁵

- Euskal Herrian badira Brontze Aroko aztarnategiak. Hona hemen batzuk: Urtiaga, Lumentxa, Santimamiñe, Marizulo... Zestoako mugetatik hurbil ere, Erdoiztako Aitzorrotz II izeneko haitzuloan, aurkitu dituzte Brontze Aroari dagozkion zeramika zatiak⁶⁸.

- Zestoan Brontze Aroko aztarnak aurkitu dira Erlaitz haitzuloan. Goi Paleolitikoa izan daitekeen harri- eta hezur-industriaz gain, Brontze Aroko zeramika, apaingailuak, giza hezurak eta animalia-hezurak aurkitu zituzten³³. Zeramikari dagokionez, hauek topatu zituzten: zintzilikatzeke zulodun ontzi karentu handi baten lepoko eta sabeleko zatiak, karentu altuko ontzi handi baten ertz zatia eta lepoko zatiak eta forma jakinik gabeko zatiak (gehienak lohiz apainduak). Apaingarri gisa erabiltzeko *Littorina obtusata* edo karrakelaren oskol zulatua ere aurkitu zuten. Giza hezurak ere bazeuden aztarnategian: 2 pertsona heldurenak, haur batenak eta jaio gabeko beste haur batenak.

Animalia-hezurak berriz, behiarenak, ardiarenak, ahuntzarenak, txerriarenak, zaldiarenak, azeriarenak, hartzarenak eta abarrenak ziren. *Pecten maximus* edo bieira handiaren eta *Pectunculus glycymeris* txirlaren eskola ere bazeuden.

- Erralla II haitzuloa da Zestoan Brontze Aroko aztarnak dituen beste gune garrantzitsua. Haitzuloa- ren lurrazalean zeramikazko piezak zeuden: ertz zati bat, hondo lauaren zati bat eta forma jakinik gabeko puskak. Behi, ardi, txerri eta ahuntzaren hezurak ere aurkitu ziren. Bertan egin zuten zundaketan zeramikazko pieza gehiago eta etxe-ahuntz eta ardien hezurak azaldu ziren⁶⁹.

- Ertxiñako haitzuloan ere badira Brontze Aroko aztarnak. Zeramikazko ertz zati bat, hondo lauaren zati bat eta beste zenbait pusketa zeuden. Uharri puskatua ere bai. Gainera, etxe-ahuntzaren eta ardiaren hezurak topatu zituzten⁷⁰.

2.6.3. Burdin Aroa

Gure lurraldean Aro honek Kristo aurreko lehen milurtekoa hartzen du. Bi garai bereizten dira aro honetan: Lehen Burdin Aro edo Hallstat deitua eta Bigarren Burdin Aro edo La Tene deitua. Azken garai honetan arte zeltikoa asko garatu zen, armagintzan,

adibidez. Urrezko, zilarrezko eta brontzezko txanponak erabiltzen hasi ziren.

- Akitanian Burdin Aroko aztarnategiak ugari dira, Arcachon, Bazas, La Brède, Chalosse, Tursan eta abarren⁵.

- Euskal Herrian Burdin Aroko aztarnategi garrantzitsuak daude Arabako La Hoyan, Nafarroako Mendabian, Murugainen eta abarren. Burdin Arokoak dira, halaber, hainbat eta hainbat mairu-baratze edo harrespil. Mairu-baratze horiek Gipuzkoako Leitza- ran ibaitik Pirinioetako Andorrraraino daude⁷¹, eta litekeena da Euskal Herriko baskoiek bakarrik egin izana⁷². Zestoan eta inguruan ez dago mairu-baratze- rik, baina Burdin Aroko herri harresituak badira.

- Zestoan Santa Engrazia azpian Altzolarats aldera dagoen Aitze kobazuloan Brontze Aroaren amaierako edo Burdin Arokoak izan daitezkeen zeramikazko piezak azaldu ziren: ontziaren ertz zati bat, atzazalez apaindutako beste ontzi baten lau zati eta lohi plastikoz apaindutako beste ontzi baten bi zati. Etxe-ahuntzaren, ardiaren, txerriaren, otsoaren eta oilarraren hezurak ere bazeuden⁷³.

- Agorerrerreka da aro honetako Zestoako beste aztarnategi bat. Horrela deitzen den haitzuloan ontzi handi bateko hiru zati aurkitu zituzten, ertza atzazalez apaindua zutenak. Etxe-ahuntz, ardi, txerri eta otsoaren hezurak ere bazeuden⁷⁴.

- Zestoako Ertxiña mendiko Danbolin haitzulokoa da Brontze Aroaren amaiera eta Burdin Aroko beste aztarnategi bat. Bertan lohiz apaindutako karenadun ontzi handi baten zeramikazko zatiak topatu ziren. Behi, etxe-ahuntz, ardi, txakur eta katuaren hezurak ere bai⁷⁵.

- Azkenik, Debako partean dagoen Ekain V aztarnategia aipatuko dugu. Zeramikazko ontzi handien zatiak aurkitu zituzten. Ontzi batzuk kordoi leun paraleloz apaindutakoak ziren. Lohiz apaindutako zeramika zatiak eta forma jakinik gabekoak ere bazeuden.



2.17. irudia. Legazpiko Mirandaola. Historiaurreaz gero landu da burdina gure Herrian.

Gainera, behiaren, txerriaren, sarrioren eta hartz arrearen hezurak ere topatu zituzten⁷⁶.

Burdin Aroari dagokionez, interesgarriak dira Zarautzen azkenaldian egin diren aurkikuntzak; izan ere, Zestoako Urbietan edo Altzolarats bailaratik itsasorainoko bide laburrena zen garai hartako gizakia-erentzat. Dena den, Zarauzko Andre Mariaren elizan (hau da, itsasotik oso gertu) 2001ean indusketak hasi ondoren Burdin Aroko egonleku bat aurkitu zuten³⁶. Kristo aurreko V. mendekoa da. Buztin plastikoa eta xehatutako hareharri horizta trinkotuta zeuden lurrean. Egonlekua karratua zen, 9 metro karratukoa, bainal ehenagoha ndiagoi zanz itekeen. G elaka rratu horren barruan, ipar-mendebaldeko izkinan, bertan

sua egiteko plaka ederra zegoen, eta lurrean iltzatutako bi lauza ere bai, sua babesteko. Lerrokatutako harriak eta pieza zeramikoak ere jaso ziren. Adituen ustetan lurra, harria eta egurra erabili zituzten egonlekua egiteko. Parrokiaren barruan abside aldeko iparreko kaperan dagoen iparraldeko gunean zegoen Burdin Aroko gelaren egitura⁷⁷.

Lehenago aipatu dugunez, Zestoa eta inguruetan ez dago mairu-baratzerik. Horiek Gipuzkoako Leitza-ran eta Andorra bitartean Pirinio aldean daude. Hala ere, Burdin Aroko herri harresituak nahiko hurbil ditugu. Brontze Aroko aztarna gehienak haitzuloetan aurkitu baldin badira ere, Burdin Aroko (K.a 1000-500. urte bitartea) gehienak aire zabalean, herri harre-



2.18. irudia. Zarauzko Andre Mariaren eliza.



2.19. irudia. Zarauzko Andre Mariaren parrokiako indusketak.

situetan, aurkitu dituzte. Hauek muinoetan daude. Oso ugari dira Araban (Araban oso famatua da Guardia herriko La Hoyakoa), Nafarroako erdi alde eta hego-ekialdean, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Lapurdin, Bizkaian eta Gipuzkoan oraingo ez dira hainbeste, baina gero eta gehiago agertuko direla espero dute adituek; izan ere, aztarna gehienak estalita daude eta aurkitzen zailak dira.

Gipuzkoan famatuak dira Bidaniko Akutukoa⁷⁸ (Bidegoian), Aretxabaletako Murugaingoa, Andoaingo Buruntzakoa, Anoetako Basagaingoa, Albizturko Intxurrekoa, Beasaingo Murumendikoa, Elgoibarko Morukoa eta Azkoitia/Azpeitiko mugan dagoen Munoaundikoa. Gipuzkoako handiena Intxurrekoa da⁷⁹, bi kilometroko harresiak dituelako. Ez da ahaztu behar, ordea, Intxurren izen zaharra “Iruntzurre” dela. Zestoatik hurbilen daudenak Akutukoa eta Munoaundikoa dira. Bizkaian Iluntzarren (Aulesti/Nabarnizko mugan), Tromoition (Garain) eta abarren ere badira herri harresitu gutxi batzuk.

Harresiz inguratutako herri horietan etxebizitzak zeuden, egurrez eta lurrez egindakoak. Zeramikazko

ontzi handiak zituzten, eta burdinazko tresnak ere bai. Burdina lantzeko labeak zituzten, eta gero armak, iltzeak, nekazaritzarako lanabesak, etab. egiten zituzten. Brontzezko eta beirazko apaingarriak ere erabiltzen zituzten.

Nekazaritzatik eta abelazkuntzatik bizi ziren. Ilarrak, babak, etab. topatu dituzte, eta lekariak xehatzeko eskuzko errota ere bai. Herri haietako jendea merkataritzan ere aritzen zen, baina oraindik ez da garai hartako txanponik aurkitu⁸⁰.

Herri harresitu haiek beren hilerria izaten zuten, baina Gipuzkoan oraindik ez dute aurkitu herri haietako hilerririk⁸¹.

Bistan da Gipuzkoan oraindik Burdin Aroko herri harresitu gutxi dagoela, baina beste batzuk ere aurkitu dituztelakoan gaude. Horietako bat edo beste gure inguruan ere egon daiteke, Errezilgo Etumeta ondoko Txorondegín, Aizarnako Lopesoroko gainean edo Ibañarrieta aldean, adibidez, baina horretaz beste kapituluren batean jardungo dugu.



2.20. irudia. Aizarnako Lopesoroko gaina.

2.7. BIGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ Beste kapitulu batean arituko gara Erdi Aroko Atapuercaren etimologiaz, hau da, euskarazko “ate” + erdarazko “puerta” izatearen aukeraz.

² CERVERA, J. eta beste. Atapuerca. Un millón de años de historia. Plot Ediciones, S.A. eta Editorial Complutense. Madril. 2001. (bosgarren argitalpena).

³ XX. *Nuevos hallazgos de los homínidos que vivieron hace más de 800.000 años*, in Diario de los yacimientos de la sierra de Atapuerca. 9. alea, 2003.

⁴ MARTIN, X. *Europako hominido zaharrenaren baraila aurkitu dute Atapuercako aztarnategian*, in Berria, 2008-III-27. (38. or.).

⁵ HIGOUNET, Ch. *Histoire de l’Aquitaine*. Privat Editeur. Tolosa, 1971. (9-15, 19-22, 31-63. or.).

⁶ LAZKANO, X. *Ikeitz leizea (Zestoa)*, in Arkeoikuska, 2002. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. (172, 173. or.).

⁷ IRIARTE, M. J. eta ARRIZABALAGA, A. *Cueva de Ikeitz (Zestoa). I Campaña de Sondeo*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 2003. 124. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2003. (116. or.).

⁸ IRIARTE, M. J. *Cueva de Ikeitz (Zestoa). II Campaña de Sondeo*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 2004. 125. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2004. (131. or.).

⁹ UBEDA, J. *Paleolito garaiko aztarnategi aberatsa aurkitu dute Zestoa*, in Berria, 1998-I-15. (23. or.).

¹⁰ LAZKANO, X. *Irikaizko aztarnategia (Zestoa)*, in Arkeoikuska, 97. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. (202. or.).

¹¹ ARRIZABALAGA, A. *Irikaitz (Zestoa). Iª Campaña*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 1998. 119. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1998. (44, 45. or.).

¹² ESKISABEL, J. *Behe Paleolitoko harribitxia*, in Berria 1999-VIII-14. (32, 33. or.).

¹³ ARRIZABALAGA, A. *Irikaitz (Zestoa). II. kanpaina*, in Arkeoikuska 1999. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1999. (116-120. or.).

¹⁴ ARRIZABALAGA, A. *Irikaitz (Zestoa) 2ª Campaña*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 1999. 120. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1999. (41-43, 48. or.).

¹⁵ ARRIZABALAGA, A. *Irikaitz (Zestoa) 3. kanpaina*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 2000. 121. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2000. (84-88. or.).

¹⁶ ARRIZABALAGA, A. *Irikaitz (Zestoa). IV. kanpaina*, in Arkeoikuska 2001. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 2001. (143-146. or.).

¹⁷ ARRIZABALAGA, A. eta IRIARTE, M. J. *Irikaitz (Zestoa). V. kanpaina*, in Arkeoikuska 2002. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 2002. (133-137. or.).

¹⁸ MUJICA, A. *Behe-Paleolitoko hamaika aztarna topatu dituzte aurtien ere Irikaitzen*, in Gara, 2003-VIII-18.

¹⁹ ARRIZABALAGA, A. *Irikaitz (Zestoa). VI. kanpaina*, in Arkeoikuska 2003. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 2003. (129-131. or.).

- ²⁰ LIZARRALDE, M. *Lur emankorra*, in Berria, 2004-VIII-19. (29. or.).
- ²¹ ARRIZABALAGA, A. eta IRIARTE, M. J. *Yacimiento de Irikaitz (Zestoa). VIIª campaña de excavaciones*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 2004. 125. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2004. (127-129. or.).
- ²² LIZARRALDE, M. *Behe Paleolitoko lantegia*, in Berria, 2005-VIII-17. (26, 27. or.).
- ²³ ARRIZABALAGA, A. eta IRIARTE, M. J. *Yacimiento de Irikaitz (Zestoa). VIIIª campaña de excavaciones*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 2005. 126. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2005. (129-131. or.).
- ²⁴ ARRIZABALAGA, A. eta IRIARTE, M. J. *Yacimiento de Irikaitz (Zestoa). Estudio de Materiales y muestras*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 2006. 127. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2006. (128, 129. or.).
- ²⁵ EXPOSITO, N. *Irikaizko sekretuak azaleratzen*, in Berria, 2007-IX-10. (33. or.).
- ²⁶ ARRIZABALAGA, A. eta IRIARTE, M. J. *Irikaitz (Zestoa). IXª campaña de excavaciones*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 2007. 128. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2007. (142, 143. or.).
- ²⁷ ALTUNA, J. *Amalda haizuloa. Aizarna. Zestoa. 1981 eta 1982. III. eta IV. ekinaldiak hurrenez hurren*, in Arkeoikuska 81-82. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1982. (37-41. or.).
- ²⁸ ALTUNA, J. *Amalda haizuloa (Zestua, Gipuzkoa). V. indusketa-ekinaldia*, in Arkeoikuska 83. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1983. (30-34. or.).
- ²⁹ ALTUNA, J. *Amalda haizuloa (Zestoa, Gipuzkoa). VI. indusketa-ekinaldia*, in Arkeoikuska 84. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1984. (32-35. or.).
- ³⁰ YRAVEDRA, J. *Nuevas contribuciones en el comportamiento cinagético de la Cueva de Amalda*, in Munibe, 58. Aranzadi Zientzia Elkarte, 2007. Donostia, 2007. (43-88. or.).
- ³¹ ALTUNA, J. *Amalda ZB: 563*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haizuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ³² ALTUNA, J. *Amalda III ZB: 639*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haizuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ³³ ALTUNA, J. *Erlaitz ZB: 557*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haizuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ³⁴ ALTUNA, J. *Arbelaitz II ZB: 569*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haizuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ³⁵ ALTUNA, J. *Ekain ZB: 553*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haizuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ³⁶ ARRIZABALAGA, A. eta IRIARTE, M. J. *Yacimiento de Irikaitz (Zestoa). V campaña de excavaciones*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 2002. 123. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2002. (62, 97, 98. or.).
- ³⁷ GOROSTITZU, A. *Peñalver: "Praile Haiz Ieko margoek 18.000 urte inguru dituztela da hipotesi nagusia"*, in Berria, 2006-XI-25 (45. or.).
- ³⁸ HIGOUNET, Ch. *Histoire de l'Aquitaine*. Privat Editeur. Tolosa 1971. (16-19. or.).

- ³⁹ ALTUNA, J. *Erralla ZB: 560*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ⁴⁰ ALTUNA, J. eta beste. *Dépôts rituels magdaléniens de la grotte d'Erralla (Pays Basque)*, in Munibe, 36. Aranzadi Zientzia Elkarte, 1984. Donostia, 1984. (3-10. or.).
- ⁴¹ ALTUNA, J. eta beste. *Cazadores magdalenenses en la cueva de Erralla (Cestona. País Vasco)*, in Munibe, 37. Aranzadi Zientzia Elkarte, 1985. Donostia, 1985.
- ⁴² VIGNE, J. D. *L'humérus de chien magdalénien de Erralla (Gipuzkoa, Espagne) et la domestication tardiglaciaire du loup en Europe*, in Munibe, 57. Aranzadi Zientzia Elkarte, 2005/2006, 1. Donostia, 2006.
- ⁴³ BARANDIARAN, J. M. eta ALTUNA, J. *La cueva de Ekain y sus figuras rupestres*. Munibe, 1969, 4. alea. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1969.
- ⁴⁴ BARANDIARAN, J. M. eta ALTUNA, J. *Excavaciones en Ekain. (Memoria de las campañas 1969-1975)*, in Munibe, 1977, 1-2. alea. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1977.
- ⁴⁵ ALTUNA, J. eta APELLANIZ, J. M. *Las figuras rupestres de la cueva de Ekain (Deva)*. Munibe, 1978. 1-3. aleak. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1978.
- ⁴⁶ GONZALEZ SAINZ, J. eta beste. *Una nueva representación de bisonte en la cueva de Ekain (País Vasco)*, in Munibe, 1999, 51. alea. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1999.
- ⁴⁷ PEÑALVER, X. *Ekaingo haitzuloaren kopiaren eraikuntza, harpe pinturak barne (Zestoa)*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 2000. 121. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2000. (99-100. or.).
- ⁴⁸ ALTUNA, J. *Asesoramiento en la realización de la réplica de Ekain*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 2001. 122. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2001. (98. or.).
- ⁴⁹ CHALMIN, E. eta beste. *Les matières picturales de la grotte d'Ekain (Pays Basque)*, in Munibe, 2002. 54. alea. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2002. (35-51. or.).
- ⁵⁰ CAZALS, N. eta beste. *La place d'Ekain (couche VII) au sein du Magdalénien basco-cantabrique: nouvelles contributions sur l'organisation des productions lithiques*, in Munibe, 2005/2006. 57. 2. alea. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2006. (177-191. or.).
- ⁵¹ Formakuntza eta Kultur Hedapena. *Réplica de Ekain*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 2004. 125. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2004. (139. or.).
- ⁵² LIZARRALDE, M. *Ekain berreraikitzen*, in Berria, 2004-XI-27. (36, 37. or.).
- ⁵³ SANSON, R. *La mise en oeuvre de la réplique d'Ekain et de sa scénographie. Mon hommage à Jesús Altuna*, in Munibe, 2005/2006. 57. 3. alea. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2006. (455-464. or.).
- ⁵⁴ LIZARRALDE, M. *Haitzuloa gero eta argiago*, in Berria, 2006-V-10. (34. or.).
- ⁵⁵ GOROSTITZU, A. *Izendapena iritsi da*, in Berria, 2008-VII-8. (40-41. or.).
- ⁵⁶ LIZARRALDE, M. *Lili jauregiaren ikerketa egingo dute*, in Berria, 2004-XII-28.
- ⁵⁷ LIZARRALDE, M. *Historiaurrearen Museoa Zestoaan eraikitzekeo proiektua abian jarri dute*, in Berria, 2007-VI-16. (42. or.).

- ⁵⁸ PEÑALVER, X. eta beste. Praileaitz I (Deba) haitzuloko Madeleine aldiko zintzilikarioak. Bertan 22. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2006.
- ⁵⁹ ALTUNA, J. Artearen sustraiak Gipuzkoan. Bertan 15. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2000.
- ⁶⁰ ALBIZU, X. eta beste. Euskal Herriko Historia I. Gaiak argitaldaria. Donostia, 2004. (11-17, 47-51. or.).
- ⁶¹ ALTUNA, J. *Amalda II ZB: 638*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ⁶² ARMENDARIZ, A. *Vaso campaniforme cordado de la cueva de Amalda II (Cestona, Guipúzcoa)*, in Munibe, 1988. 40. alea. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1988. (83-88. or.).
- ⁶³ ALTUNA, J. *Amalda IV ZB: 672*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ⁶⁴ ALTUNA, J. *Amalda V ZB: 673*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ⁶⁵ ALTUNA, J. *Astuigaina ZB: 637*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ⁶⁶ ALTUNA, J. eta beste. *Arluze ZB: 230*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. I. Megalitoak. Munibe, 1990. 7. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1990.
- ⁶⁷ BARANDIARAN, J. M. *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, in Jose Miguel de Barandiarán. Obras completas. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1972. (211. or.).
- ⁶⁸ GURRUTXAGA, I. *Lurpeko historiaren arakatzailleak*, in Berria, 2005-VIII-24. (14, 15. or.).
- ⁶⁹ ALTUNA, J. *Erralla II ZB: 670*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ⁷⁰ ALTUNA, J. *Ertxiña ZB: 635*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ⁷¹ TXIMENO, X. Megalitoen zibilizazioa eta euskal hilarriak. Gaiak argitaldaria. Donostia, 2003. (15-53. or.).
- ⁷² PETXARROMAN, I. *Baliteke baskoiek bakarrik egin izana Pirinioetako mairu baratzeak*, in Berria, 2004-XII-5. (4. or.).
- ⁷³ ALTUNA, J. eta beste. *Aitze ZB: 562*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ⁷⁴ ALTUNA, J. eta beste. *Agor-erreak ZB: 692*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ⁷⁵ ALTUNA, J. eta beste. *Danbolin ZB: 558*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.
- ⁷⁶ ALTUNA, J. eta beste. *Ekain V ZB: 677*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.

⁷⁷ IBAÑEZ, A. Menosca eta Ipuscua artean. Zarautz, 2003. (41-43. or.).

⁷⁸ *Akutu* toponimoak latinezko *acutus* (hau da, *zorrotza*) dakarkigu gogora. Ernio mendiaren ondoan bada, Albizturko partean, *Mendikute* ere, hots, *mons acutus* edo mendizorrotz.

⁷⁹ PEÑALVER, X. eta URIBARRI, E. Intxur. Burdin Aroko herrixka. Tolosaldea Historia Bilduma 01. Aranzadi Zientzia Elkarte. Albiztur-Tolosa, 2002.

⁸⁰ PEÑALVER, X. eta SAN JOSE, S. Burdin Aroko herri harresituak Gipuzkoan. Bertan 20. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2003.

⁸¹ SAN JOSE, S. *Munoaundi (Azkoitia-Azpeitia). Indusketa arkeologikoaren II. ekinaldia*, in Aranzadiana. Aranzadiko Berriak 2007. 128. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2007. (145. or.).

